

HISTORIA TXATALAK

Noiz sortu zen Oñati?

> Urte askotan pentsatu izan da 1149ko data duen dokumentu bat (Oñatiko Jaurerriaren Oinordekotza Eskritura) zela Oñatiri buruzko lehenengo agiria, baina gaur egun faltsutzat jotzen dute historialariek. Rosa Ayerbek ('Historia de Oñate. Siglos XIV-XIX') liburuan dioenez, Iñigo de Guevara jaunak idatzi omen zuen 1455-1456 aldera. Bere anaia Pedro Velez IV.a seme-alabarik gabe hil zenez, Enrique IV.a erregeak agindutako ondasunen enbargoari aurre egiteko.

Oñatiri buruzko aurreneko dokumentua 1284koa da, eta Oñati Jaurerri (señoría) bezala agertzen da, Gebaratarrei lotuta. Urte hartan Orduña Bizkaian sartu zen, eta lekuko bezala "Juan Velez de Guevara, señor de Oñate" izeneko batek esku hartu zuen. Hortik aurrerako agiri askotan "de Oñate" edo "de Oñati" hitzak "de Guevara"-ren sinonimo bezala agertzen dira, eta beti "Jaun"(señor) bezala. "Konde" titulua XV. mendetik aurrera azaltzen da.

Ayerberen ustez, Gebaratarren familia XIII. mende amaieran lotu zitzaion Oñatiri, San Migel elizaren (12000 urtean azaltzen da dokumentatuta aurreneko aldiz) patrono bihurtu ondoren.



Zubillaga

> Jerardo Elortza

Sail berri honi ekiteko, Oñatiko auzoetatik hasiko gara; behetik, hau da, Zubillagatik gorantz. Egia da San Prudentzioko hiru baserri ere (Elorregi haundi, Elorregiko errota eta Aumategi) gure udalerrian sartzen direla, baina horiek, sarritan egin izan den bezala eta erraztu alde, Zubillagakotzat hartuko ditugu.

Leku-izenari dagokionez, samurrena **zubi** berbatik datorrela pentsatzea da, auzoan hainbat erreka eta zubi baitaude, baina filologoak ez dira horretan ados jartzen eta batzuek **zur>zubil** formarekin zerikusia eduki dezakeela uste dute.

Kaletik kanpora dauden auzo oñatiarretan Zubillaga "kaletarrenetakoa" dugula esan daiteke. Hain zuzen ere, gainontzeak oraintsura arte bereziki baserri-girokoak izan baldin badira, Zubillagak, Erdi Aroaz geroztik, industria-gune garrantzitsua eduki baitu siehun urte baino gehiagotan: olaren inguruan lehenengo, fanderiarekin hurrengo, eta azken mendeko fabrika pilarekin azkenik.

Jauntxo gebaratarren burdinola ospetsua gerora Zubillagako Forjak izeneko lantegia jarri zuten tokian egon zen bostehun bat urtean. 1980ko hamarkadan eraitsi zuten oraingo industria-dea eraikitzeko, bide batez gure

Aspalditxotik izan da Zubillaga industrigune garrantzitsua

industria-arkeologiaren aztarnarik inportanteenak betiko desgerraraziz. Fanderia, berriz, XVIII. gizaldiaren amaieran jasoarazi zuten Gomendiotarrek Osin urdin aldean, eta, nola edo hala, gaur arte iraun du industria-gune gisa.

Zubillagako hainbat etxeren izen zaharrek garbi salatzen digute auzoaren jatorri industrial: Olaburu, Urtzaille (fundidorearen bizilekua), Txipitxaille (mea, minerala txipittu, xehatzen zuenarena) Arotzena edota Errementarikua-k, adibidez. Eta beti eutsi dio auzoak fabrika-kutsu horri. Hori dela eta, XX. mendearen lehen erdialdian *Eibar txiki* goitizena ezarri zioten, lantegi asko zuelako eta gorritzat samarra zelako, agian.

Alabaina, izan du Zubillagak neurri batean bere nekazari alderdia ere. Adierazgarriak dira bertakoek Oñati errekek bereizten dituen auzoaren bi zatiei eman dizkieten izenak: *Artakale* zubian gora dagoenari, eta *Ogikale* zubitik behera zabalitzen denari. Beharbada behealde horretan garia ereiteko lursail egokiagoak zeudelako, gaur egun denak fabrikaz beteta aurkitzen badira ere. Errota ere inguru horretan kokatzen zen, orain Altunaneke fabrika dagoen erreka-ertz horretan. Dena den goiko aldeko olan ere ehotzen omen zen inoiz.

**ARANBURU
ALTZARIAK**

Kale Zaharra, 21
Kale Barria, 11
Lizaur A., 7
OÑATI
Tfnok: 78 11 60 / 78 05 73

**ESTILO
GUZTIETAKO
ALTZARIAK**

**LANPARAK,
TAPIZAK,
KORTINAK**

S distira
estetika zentrua

- Manikura eta Pedikurak
- Solarluma
- Gorputzeko Tratamenduak
- Aurpegiko Tratamenduak
- Depilazioa

San Lorenzo 4 beheà | Tel. 943 78 08 86 | 20560 OÑATI
email/twitter: estetika.distira@gmail.com